

noaue



Oihane Rubio: “Umetatik izan dut bidaiatzeko grina”

Errigoraren produktu sorta zabala eskuratzeko aukera

Lokal berriarekin ospatu zuten Gazte Eguna



**Usurbilgo odol emaileak:
“Bizitza asko salbatzen dira.
Ahal bada, eman”**



MARTXOAK 4 - 24

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Plateretik baratzeroa

Eskaerak:

errigora.eus

+34 848 87 12 23
edo Noaua!n

Apirilaren lehen hamabostaldian
jasoko ditugu produktu guztiak.



Arrolitz
Oliba olio jaurtze-olito
errigora
5 LITROKO OITZEA
33€



Arbekina
Oliba olio jaurtze-olito
errigora
5 LITROKO OITZEA
32€



Pikual
Oliba olio jaurtze-olito
errigora
5 LITROKO OITZEA
19€



Enpeltre
Oliba olio jaurtze-olito
errigora
5 LITROKO OITZEA
19€

Pasto
Pastak 1kg-ko paketeak
12 pakete
35€



Zainzuriak
Zainzuriak
Zainzuriak
5 LITROKO OITZEA
45€



Zainzuriak
Zainzuriak
Zainzuriak
5 LITROKO OITZEA
43€



Kardua
Kardua
Kardua
5 LITROKO OITZEA
29€



Kardua
Kardua
Kardua
5 LITROKO OITZEA
21€



Tomatea
Tomatea
Tomatea
5 LITROKO OITZEA
21€



Tomatea
Tomatea
Tomatea
5 LITROKO OITZEA
19€



Kremak
Kremak
Kremak
5 LITROKO OITZEA
28€



Txixiriloak
Txixiriloak
Txixiriloak
5 LITROKO OITZEA
27€



Arroza
Arroza
Arroza
5 LITROKO OITZEA
43€



Arroza
Arroza
Arroza
5 LITROKO OITZEA
22€



Arroza
Arroza
Arroza
5 LITROKO OITZEA
22€

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.com
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



**FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA**

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24 orduez)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

Albisteak iruditan

Ugartondoko asfaltatze lanen eraginez, aldaketak Kalezarren

Egunotan martxoaren 18ra arte itxita aurkituko duzue Ugartondoko urbanizazio berria inguratzen duen bide zati bat; Haur Eskolatik ezkerre Pikaola aldera doana hain zuzen. Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez, asfaltatze eta margoketa lanak egitekoak dira bertan. Ondorioz, orain arte bezala Puntapaxetik gorantz igo ahalko da Kalezarrera, baina Ugarte baserri parean ezkerre biratu ordez, Haur Eskolatik gora egin eta azken aldian ibilgailuentzat itxita zegoen bide zatia zabalik izango da. Kalezartik Usurbila jaisteko aldiz, auzo osoa zeharkatu beharko da Belmonte kaletik.

Astebeteko atzerapena,

N-634 errepideko lanetan

Berez martxoaren 25erako finkatua dute N-634 errepideko Troia eta Txi-



Udal iturrien arabera, martxoaren 18an amaituko dira asfaltatze lanak.

kierdi arteko bide zatiko hobekuntza lanen amaiera eguna. Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Udalari iragan

asteen ohartarazi zionez ordea, astebeteko atzerapenarekin ari dira obra hauetan.

Laburrean

Goranzko bidean

Otsaila amaieratik mantso bada ere, etenik gabe gorantz doa berriz 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia tasa.

317,06koa zen otsailaren 27an; aste hasieran honetan 539raino igoa zen intzidentzia tasa.

1956ko kintoen bazkaria

1956an jaiotakoak apirilaren 2an larunbata batuko dira Atxega jauregian. "Animatu eta gogoz dagoenak martxoaren 20a baino lehenago izena eman beharko du ondorengo telefonoetan: 607 942 458 (Xabier) edo 695 713 969 (Josefina)".

Hilaren 27an, ordu aldaketa

Martxoko azken asteburuan ordua aldatu beharko da, udako ordutegira moldatzeko. Erlojua ordubete aurreratuko denez, beranduago helduko dira egunsentia eta ilunabarra. Martxoaren 27an igandea, goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Luis Aranalde

Bigarren aukera bat

Hogei “Goya” saritik hiru eskuratu zituen duela hilabete bat ‘Maixabel’ pelikulak (hamalau sailetan zegoen izendatua): Maria Cerezuela aktore gasteiztarak (Jaureguiren alabaren rola egiten du) emakumezko aktore berririk onenarena, Blanca Portillo madrildarrak (Maixabelen papera antzeztzen du) taldeko emakumerik onenarena eta Urko Olazabal bilbotarrak (Luis Carrasco etakide ohiaren papera interpretatzen du) taldeko aktorerik onenarena.

Filmaren sinopsia: 2000. urtean, Maixabel Lasaren senarra, Juan Mari Jauregui hil zuen ETAk. Hamabi urte geroago, ezohiko eskaera bat jaso zuen Maixabelek: bere senarra hil zuen gizonezko-tako batek berekin hitz egitea eskatu zion Langraiz Okako espetxean (Araba), zigorra betetzen ari zen kartzelan, talde terroristarekin zituen harremanak hautsi ondoren. Zalantzak zalantza eta atsekabe handia izan arren, Maixabelek onartu egin zuen aurrez aurre ikustea. “Mundu guztiak merezi du bigarren aukera bat”, erantzuten du emakumeak galdetzen diotenean zergatik erabaki zuen hitz egitea bere senarra hil zutenekin. Eta elkarrizketa batean erantsi zion esaldi ho-



Maixabel filma “errukiari eta enpatiari” eskainitako “himno bat da”.

LUIS ARANALDE

“Hilabete pare bat dira filma ikusi nuela. Benetan hunkituta gelditu nintzen. Sekulako indarra du, sakontasuna, intentsitatea, giza balore nagusienak jorratzen ditu”

rri: “delitu bat egin duena gizarteratzeko balio behar du espetxe politikak”. Hori da hain zuzen ere kartzela politikaren helburu nagusia. “Nire senarrak ere hitz egingo zukeen ziur aski hil zuten terroriste-kin”, erantzun zien bere erabakiaren kontra jarri zirenei. Maixabelen deliberamendu hura ez zitzaien gustatu eskuin muturrekoei, ETari eta bere in- gurukoei ere ez.

Hilabete pare bat dira filma ikusi nuela. Benetan hunkituta gelditu nintzen. Sekulako indarra du, sakontasuna, intentsitatea, giza balore nagusienak jorratzen ditu. Elkarrizketaren garrantziaz mintzatzen da pelikula hau: etakide ohiak eta Maixabelek apustu irmo hori egin zuten. Errukiari eta enpatiari himno bat da. “Ez gara lagunak izango, lagun-lagunak urriak izan ohi direlako, baina beharrezkoa da mundu guztiak onartzea desberdinekin bizi daitekeela, errespetuan eta entzutean oinarritutako bizikidetza egon daitekeela”, esaten du Maixabelek.

Iruñeko espetxean bota zuten Maixabel filma eta presoan artean arrakasta handia izan zuen. Adiskidetzear, indarke- riaz, elkar ulertzeaz eta bakea-

ren kulturaz mintzatu ziren presoak. Baita gizartera- tzean oinarritutako justizia eredu errestitutibo baten beharraz ere. Ikusleek jarre- ra aktiboa izan zuten une oro, galderak eta iruzkinak eginez. Emanaldian ziren Maixabel Lasa eta Iciar Bollain eta presoek zoriondu egin zituzten. ETako kide izateagatik kartzelan dauden hamar bat preso, ordea, ez ziren emanaldira bertaratu. Pelikulari “bizkarra eman” ziotela argitaratu zuten zen- bait hedabideak.

Eduardo Santos da Nafarroako Gobernuko Justizia eta Migrazio Politiken Kon- tseilari eta ez du bat egiten interpretazio “negatibo” horrekin. Oso atsegin zait berak ematen duen iritzia eztabaida horren gainean: “preso askorentzat, dio, deserosoa da pelikula hori ikustea hedabideen aurrean. Filma gogorra da eta, pre- so batentzat oso gertukoak izan daitezkeen gaiak jo- rratzen ditu. Eztabaidak piztu ditzake edo oso ba- rruko prozesuak azaleratu. Sentimendu horiek ez dituzu zertan jendaurrean erakutsi eta emanaldira joan ez zi- renen zilegitasun osoa dute. Urratsez urrats eraikitzen da elkarbizitza. Pausoak eskatu behar dira, baina, prozesua- ren esparru pribatua erres- petatuz”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Santueneko prozesua, fase berrian

Santuenek bere etorkizuna elkarlanean erakitzen jarraitzen du. Iaztik abian duten parte hartze prozesua bigarren fasean murgiltzera doala berri eman dute sustatzaileek.

Auzoa biziberritzeko egitasmoaren baitan epe motz eta luzerako proiektuak aurreikusiak dituzte, dagoeneko zerrendatuak. “Etxealdian urte hasieran egin bezala, epe motzeko lanak udal-brigadarekin egingo dituzte Santuenean ere”. Esku-hartzeok non egin asmo dituzten bertatik bertara ikusten izan ziren iragan astean, Santuenea Elkarlanean prozesuko talde eragilea eta udal ordezkaritza tekniko eta politikoa. “Lanak planifikatu eta gauzatzea izango da hurrengo urratsa”, iragarri dute.

Baina hauez gain, badira epe luzeagorako auzoari osoki eragingo dioten proiektuak. “Epe luzerako lanak dira, dimentsio handiagokoak baitira: diru-iturriak lortu, proiektuak idatzi eta lizitazioak egin behar dira.



Epe motzeko lanak udal-brigadarekin egingo dituzte.

SANTUENEA LANTZEN

“Lanak planifikatu eta gauzatzea izango da hurrengo urratsa”

Besteak beste, etxebizitzetan igogailuak jartzeko aukerez, auzoaren irisgarritasunaz, eta, oro har, espazio publikoaz hitz egingo dute”. Gaion bueltako bilera egin zuten martxoaren 11n.

Dokumentazioa, usurbil.eus atarian ikusgai

Gogoan izan, Udalak eta auzotarrek iaz abiarazitako prozesua Hiritik At! Kooperatiba dinamizatzen ari da. Iaz herritarrekin ekarpenekin diagnosia egin eta orain gauzatzen joango diren epe motz zein luzeagoko proiektuak multzo banatan sailkatuak dituzte.

Prozesu honi buruzko informazio gehiago eta dokumentazioa, atari honetan eskura dezakezue usurbil.eus atarian.

Txirrina lapurtu dute Irati Ibargoienen zentroan

Txirrina hondatu eta lapurtu dute asteburuan Irati Ibargoien Fisioterapia eta Osasun Zentroan. Erakusleihoan ez zuten inolako txikiziorik egin. Astelehen goizean konaturatu ziren gertatutakoaz.

Ostiralean lanetik ateratzean, oso-osorik zegoen txirrina. Astelehenean hondatuta aurkitu zuten langileek. Asteburuan gertatutako zerbait izan dela ziur daude langileak, eta aitortu dute lehen aldia zutela halakorik gertatzen zitzaiela. Ez dakite nor izan den edo zein arrazoiengatik gertatu den ezberharra.



Asteburuan zentroko txirrina txikitu zuten ezezagunek.

Ika-mika

#M8 manifestua

Azken urteetan mugimendu feministak mahaigainean jarri du mobilizatzeko ahalmena eta kapitalaren aurrean bizitzak erdigunean jartzeko aldarria. Testuinguru sozial honetan, Neska* Gazteok ere bidea egin dugu, sufritutako problematika zehatzak salatuz eta sistema arrakalatuz. Bidean, baina, errealitate gordin ugarirekin topo egin dugu, horien artean sistema cisheteropatriarkala feminismoaren olatua bereganatu nahi izatearekin edo pandemia mundial batekin.

Egoera hauek guztiek argi utzi dute kolapso eta krisi anizkoitz baten erdian bizi garela eta, hori konponduko duen aldaketa erradikal bat gauzatu nahi badugu, bizitzak erdigunean kokatu behar dugula. Izaki autonomoak ez garen heinean, zaintzak guztiok behar ditugu, baina kapitala lehenesten duen sistema patriarkal eta arrazista honetan ez dago horretarako lekurik. Sistema honi berdin zaio modu desorekatuan banaturik dauden zaintza lan asko aitortu ga-

beak izateak edo beste hainbatek zaintzarako eskubiderik ez izateak.

Honek Neska* Gazteongan eragin zuzena du, kontsumoan eta maitasun erromantikoaren ideologian oinarritutako harreman ereduak, gorputz hegemonikoen edertasun kanonak edo eta antsietatea, depresioa eta elikadura-nahasmenduak bezalako ondorio psikosozialak sorrarazi baitizkigulako. Baina Neska* Gazteok nazkatu-rik gaude! Zaintza sistema komunitario publiko bat be-

har dugu eta, badakigunez sistema heteropatriarkal kapitalista honetan bizitza erdigunean ezin izango dugula jarri, sistema bera errotik moztuko dugu! Sistema honetan zaintzea erradikala delako, Neska* Gazteok borrokan gaude!

Zapaltzen gaituen sistemari sua!

Atzo, gaur eta beti, gora borroka feminista!

#ZaintzaGabeBizitzarikEz

#NeskaGazteokBorrokanGaude

Oihane Rubio: “Umetatik izan dut bidaiatzeko grina”

Gizarte hezitzailea da Oihane Rubio. Ikasketa guztiak Euskal Herrian egin ondoren, kanpora joateko grina piztu zitzaion eta pandemiaren egoerak asko lagundu ez bazion ere, urtebete darama Europako hainbat txokotan bizitzen. NOAUA!rekin partekatu ditu bere bizipenak.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Florentziara?

Oihane Rubio: Egia esan ez neukan jomuga jakinik. Hasiera batean Mexikora joan nahi nuen, baina pandemia garai hauetan oso zaila da Europatik kanpora joatea. Orain arte, Maltan bizi izan naiz, eta behin hango lanak amaituta curriculumak bidaltzen aritu nintzen Europako txoko askotara, eta Florentziara ekarri nau zoriak.

Lehenago Maltan egon zinen, beraz.

Orduan ere ez nuen Europan geratu nahi. Duela urtebete Australiara joatea nuen buruan, baina ezinezkoa izan zen osasun egoera kontuan hartuta. Nik lagun bat nuen Maltan bizi zena, eta hark aipatu zidan Maltan lanpostu ugari ari zirela sortzen eta jende bila ari zirela lanerako. Bizi-kalitatea oso ona da Maltan eta konbentzitzen ez zuen lan askorik hartu beharrik izan. Oso ideia ona iruditu zitzaidan Maltara joatea, eta



“Azken urteotan argi neukan ikasketak amaitu eta kanpoan bizimodua atera nahi nuela”, adierazi digu Oihane Rubiok. Florentzian bizi da orain.

OIHANE RUBIO

“Egunerokotasunarekin eta monotoniarekin hausteko beharra neukan”. Florentzian bizi da gaur egun

hara jo nuen bi aldiz pentsatu gabe. Pandemia zertxobait lasaitu zenean, Maltan lanean hasi nintzen hainbat lekutan. Lehenengo turismoari lotutako lanak izan nituen hoteletan, eta gerora, nire ikasketei lotuta zegoen zerbait egin nahi nuela ikusita, gizarte hezitzaile lana bilatzen hasi nintzen. Ez nuen berehala halako lanik lortu eta ia sei hilabetez ostalaritzan aritu

nintzen. Haurrak zaintzen ere aritu nintzen, eta azkenean nire ikasketei lotutako zerbait aurkitu nuen: pertsona autistekin lan egiten zuten zentro batean.

Nolatan aldatu zenuen Florentzia Maltagatik?

Azken hilabeteak hostel batean egin nituen eta bertan jende mordoa ezagutu nuen. Haiekin nire etorkizuneko helburuak eta gogoko esparruak partekatu nituen eta aipatu zidaten Italian zentro asko zeudela non gizarte hezitzaile askok lan egiten zuten eta curriculumak bidaltzeari ekin nion. Azkenean, baiezkota eman zidaten orain lan egiten dudana zentroan eta

Florentziara etorri nintzen. Mexiko nuen buruan orduan ere, baina oraindik Europatik kanpo ateratzea zaila da pandemiaren ondorioz. Hala ere, ahal dudanean, Europatik ateratzea da nire asmoa.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat eza gutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzioa@noaua.eus

“Mundu osoko jendearekin harremandu naiz”

Kanpoko jendearekin asko harremandu zarela begibistakoa da. Ahoskeran igartzen zaizu.

Mundu osoko jendearekin harremandu naiz. Nire lagun gehienak latinoamerikarrak dira, eta horregatik ahoskera aldatu egin zait pixka bat. Espainiako jendearen lagun ere

egin naiz, ez agian horrenbeste, baina tira. Europa iparraldeko jende dezente ezagutzen dut, eta orain Florentzian italiar asko ezagutu ditut, eta espainiarrak. Orokorrean, saiatzen naiz gaztekeraz hitz egiten ez duen jendearekin egoten, ingelesa praktikatu ahal izateko.

Ingelesarekin ondo moldatzen zara orain?

Etorri nintzenean baino askoz ere hobeto. Nahikoa oinarri sendoa daukat orain eta azterketa batean izena ematekotan nabil. Australian sartzeko lanerako bisa lortu nahi dut eta horretarako ingelesa ezinbeste-

koa da. Pixkanaka pixkanaka ari naiz. Egia da orain Italian egonda ez daukadala aukera gehiegi ingelesa praktikatzeke, bertakoek ez baitute maila handiegirik. Lagunekin bideo-deiak egiten ditut, eta modu horretan, mintzamina praktikatzeko.

“Pandemia aurretik baino gehiago bidaiatzeko ari naiz orain”

NOAUA! Nolakoa da zure egunerokotasuna?

Oihane Rubio: Maltan nengoe-la, hotel batean egiten nuen lan. Hoteleko langileontzat gelak izaten zituzten eta han bizi nintzen. Jende asko geunden eta izugarriko esperientzia izan zen. Hoteleko kontratua behin amaituta, Maltako hirigunean pisu bila aritu nintzen Pozon, eta gero Polonian lan egiteko aukera suertatu zitzaizkidan.

Poloniara ere joan nintzen, eta bidaia asko egiteko aukera eman zidan horrek. Denetarik lekuetan bizi izan naiz orain arte. Hosteletan bizitzea asko gustatzen zait, mundu zabaleko jendea ezagutzeko aukera ematen baitit horrek.

Orain, pisu batean bizi naiz Florentzian bi italiar eta espainiar batekin. Arraroa egiten zait logela pribatua izatea, orain arte partekatzen ohituta egonda. Intimitatea zer den ere ia ahaztuta neukan. Orain eguneko zentro batean lan egiten dut desgaitasuna duten pertsonekin. Oso gustura nago eta goizez ari naiz lanean. Arratsaldean entrenatu egiten dut, ko-



“Orain eguneko zentro batean lan egiten dut, desgaitasuna duten pertsonekin”.

OIHANE RUBIO

“Hosteletan bizitzea asko gustatzen zait, mundu zabaleko jendea ezagutzeko aukera ematen baitit horrek”

rrika egitera aterata edo beste. Gero, lagunekin geratzen naiz

eta parranda ere egiten dugu. Askok gustatzen zait dantzatzea. Asteburuetan turismo pixka bat egiteko aprobetxatzen dut. Leku berriak ezagutzeko asko gustatzen zait.

Zein leku bisitatu dituzu orain arte?

Italian hilabete daramat, eta beraz, oraindik ez dut herrialdea gehiegi bisitatzeko astirik izan.

Siena, Liborno, Luca eta Pisan egon naiz, eta asteburu honetan Dublinera noa.

Pandemiaren eragina nabaritu duzu atzerrian?

Bai, jakina. Bidaiatzerako garaian arazo izaten ari da pandemia. Herrialde bakoitzak bere neurriak ditu eta horrek eragina izan du. Ez da gauza bera horrela bidaiatzea edo pandemiarik gabeko garaian bidaiatzea. Hala ere, orain gehiago ari naiz bidaiatzen pandemia aurretik baino. Pixkanaka ohitzen ari naiz neurriak ondo begiratu eta ahalik eta bizitza normalena egitera.

Zer botatzen duzu faltan?

Egia esan ezer ez. Ez dut faltan botatzen eguraldia eta orokorrean beste ezer ere ez. Familiarekin harremanetan nago, jakina. Lagunekin ere harremanetan nago, baina ez lehen bezala. Norbait kanpora joaten denean beti galtzen da eguneroko harreman hori. Benetan lagunmin izan ditudan horiekin harremanetan jarraitzen dut. Gainera, hemen lagun berriak egin ditut.

“Epe erdira etorkizuna irudikatzailea oso zaila egiten zait”

NOAUA! Epe ertainean non eta zertan irudikatzen duzu zeure burua?

Oihane Rubio: Ez nuke jakingo esaten non egongo naizen. Nire ametsak jarraitu nahi

ditut, baina gizartea uneoro aldatzen ari da. Pandemiak erakutsi digu egunean eguneko egin behar dugula, eta epe erdiko etorkizuna irudikatzea oso zaila dela. Benetan gusta-

tuko litzaidake Australian edo Latinoamerikan bizitzea, horri ez nioke muzin egin nahi. Hala ere, ez dago jakiterik bihar zer gertatuko den.

Agian, maitemindu egingo

naiz eta ez dut beste inora joan nahiko, edo oso gustura egongo naiz hemen eta Australia eta Latinoamerikara bidaiari baino ez naiz joango. Nork daki.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

European, Korrika!

Duela 25 urte ere, **Korrika** izan zuten hizpide garai hauetan. Orduan, pasa berri zen Korrika Usurbildik, eta NOAUA!ko lagunek argazki mordoa atera zuten. Gainontzekoan, denetariko albisteak zeuden Usurbilen.

Joan Aldasoro Usurbilgo erretore zenak sinesmenari buruzko artikulua bat idatzi zuen, Bibliako pasarte bat gogora ekarrita.

Politika gaietan, **Herri Bata-suna** eta **EAJ** ika-mika gogo-

rean aritu ziren ideologia kontuak tarteko.

Garaiko ohiturak bildu zituzten kale inkesta eta erreportaje batean: prozesioak, Azken Aferria, oporrak...

Aurrekontua, pezetatan

Udal aurrekontuak ere plazaratu zituzten, 639.739.498 pezeta, hain zuzen ere, denetariko zerbituen artean banatzeko: zerbitzu ekonomikoak, zerbitzu orokorrak, Udaltzaingoa, Garapen Agentzia, Euskara, Ongizatea eta Osasuna... Banaketaren

zenbatekoak aurkeztu zituzten udaletxeko plenoan.

74 lagun Gavarnieko pistetan

Kirol arloan, eskiazaileak hizpide. **Andatza KKEk** antolatutako eski irteerak arrakasta itzela izan zuen. 74 pertsona joan ziren eskiaztara Gavarnieko pistetara, eta itzuleran, sari banaketa bat ere egin zuten partehartzaile guztien artean.

Zenbaki hartan NOAUA!ren Batzar Orokorrean parte hartzeko deia luzatu zioten herriari usteak eta iritziak biltzeko.



1997ko martxoaren 21eko azala.

Duela 25 urte

NOAUA! 16. zenbakia 1997ko martxoaren 21ean

“Elkarrizketak buruz esaten amaitzen duzu”

Idoia Palacios Iturbe. 24 urteko neska hau atletismoan eta areto futbolearen ibilia da, eta gaur egun Añorgako futbol taldean aurrerari postuan jokatzen du. Horretaz gain, EITBn dabil “Goenkale” telesailaren errealizadore laguntzaile lanetan.

NOAUA! Noiztik zabilta futbolearen?

Idoia Palacios Iturbe: Ikas-tolako edo Institutuko jolasgaraietan beti partidak jokatzen genituen. Institutuko garai hartan, gainera, atletismoan ere ibiltzen nintzen. U.B.I amaitzean, areto futboleko talde bat sortu nahi zuten Usurbilen, Txiripi, eta izena eman nuen.

Eta atletismoa?

Urtebete pasa nuen biak egiten. Egutero neukan entrenamendua. Oso nekatuta bukatzen nuen asteburuetan, alde batetik partidua, eta bestetik krosa nuelako. Azkenean, futbolar irabazi zuen.

Orain, berriz, Añorgan zabilta.

Bai, aurtengoa bigarren denboraldia dut bertan. Añor-

gatik deitu zidaten ea bertan jokatu nahi nuen galdetuz. Hasieran ez nuen nahi, Añorga niretzat gehiegi zela iruditzen zitzaidalako.

Zenbat gol sartu dituzu orain arte Añorgan?

Nahiz eta aurrerari postuan jokatu, iaz denboraldi osoan bakarra sartu nuen, aurtengoz, berriz, 17 sartu ditut oraingoz.

Eta sailkapenean zenbagarren zozte?

Iaz, Ohorezko Mailan irabazi egin genuen. Aurtengoz ez dago maila hori, Nazional Maila bakarrik. Bost partidua falta dira Liga amaitzeko eta lehen postuan goaz. Ez dago gaizki.

Zein da gertatu zaizun xelebren handiena?

Malagan jokatu behar genuen hartakoa. Hegazkinez joan behar genuen, baina zuzenean ezinezkoa zenez, Sondikatik Bartzelonara eta handik Malagara joan behar genuen. Malagara iritsitakoan maletak Bartzelonan geratu zirela konturatu ginen.

Nola jokatu zenuten orduan?

Malagako taldekoek utzi ziz-

kiguten kamiseta estuekin. Gainera, botak ez genituen, zapatilekin jokatu behar izan genuen, baina ez belardun zelailan, beste batera eraman gintuzten.

Eta emaitza?

Irabazi egin genuen, baina itzuleran justu-justu itzuli zizkiguten maletak Bartzelonan.

Zein da zure jokalaritua?

Guardiola, oso ondo jokatzen duelako, eta gainera, ez dagoe-lako bat ere gaizki.

Telebistan lanean omen zabilta.

Bai, Andoainen irudia eta soinua amaitzean, Pausoka produktoratik deitu zidaten errealizazio laguntzaile lana egiteko. “Goenkale”, “Gure familia eta beste piztua batzuk” eta “Los ojos de la ciudad” programa berriak lan egin dut.

Zein lan egiten duzu?

Zaila da azaltzea. Nik nork hitz egin behar duen esaten dut, denborak hartzen ditut, muntaketa egiten dut... Goenkale egiten 7:30ean hasi eta 14:45 arte grabatzen dugu. Arratsaldean, 16:00etatik 20:00ak arte



Idoia Palacios.

kapitulua muntatzen dugu.

Goenkale ikusten al duzu etxean?

Bai. Nire lana eta gainontzeko taldeena ikustea beharrezkoa da. Baina elkarrizketak buruz esaten amaitzen duzu.

Zein lan egitea gustatuko litzazuke?

Dokumentalak, animailen buruzkoak. Eta gorilei buruzkoa bada, hobe.

Telebista ala futbola?

Futboletik bizi ahal izango banintz, dudarik gabe futbola aukeratuko nuke. “Eskape” bat da niretzat. Gainera, lagun onak egin ditut bertan.

Soinurbil, Zumarteren eskutik

Asteartean abiatu zen Soinurbil, Zumarte Musika Eskolak antolatzen duen ekitaldi sorta. 'Lalala' ikuskizuna iragarria zegoen astearte honetarako. Asteazkenean Urnietako Musika Eskola aritu zen Sutegin. Hauek dira asteburu honi begira iragarri duten egitaraua.

Martxoak 17, osteguna

■ 18:30 Turukutupa konpainiaren 'Reziklantes' ikuskizuna kalean. Hondakin-materialak berreskuratu eta birziklatu ondoren, proposamen artistiko bihurtzen dituzte. 'Reziklantes' kontzertua ibiltaria da.

■ Sergio López de Landache, Víctor García de la Torreren eskutik.

Martxoak 18, ostirala

■ 19:30 'Rockalean' musika ikuskizun ibiltaria kalean.



Rockalean taldeak rock eta pop estiloko kantu ezagunak jotzen ditu.

Martxoak 19, larunbata

■ 18:00 Ilunbe orkestra sinfonikoaren saioa Salbatore elizan.

■ Zuzendaria: Joseba Garmendia.

Martxoak 20, igandea

Araiako musika bandaren kalejira eta emanaldia:

■ 12:00 Kalean emanaldia.

■ 13:00 Frontoian azken saioa.

Martxoak 28, astelehena

■ 18:00/19:00 Organo erakus-

taldiak Salbatore elizan, Joan Luis Atxegaren eskutik.

■ Zehaztasunak: "Usurbilgo Organoa berezia da. 1907an, Parisen eraiki zuten, Cavallé-Coll lantegietan. 1920 inguruan Usurbilgo Salbatore parrokiak hain baliotsua den tresna erosi zuen zenbait herritarren ahalegin ekonomikoari esker. Azken urteotan zaharberritze-lan garrantzitsuak egin dituzte Usurbilgo organoan".

Herritarrek ere

"Aktibatzen"

prozesuko partaide

"Aktibatzen" prozesuaren baitan, kirol eskaintza eta instalakuntzak hizpide izan zituzten martxoaren 10eko lehen saioan. Gaion bueltan hausnartu eta proposamenak egiten aritu ziren, aurreko asteetan 600 herritarrek baino gehiagok, Usurbilgo biztanleriaren %10ak betetako galdetegietan erantzundakoa abiapuntu gisa baliatuta.

Bigarren saioa, hilaren 24an egingo dute. 18:00etan Potxoenean; Eskola Kirola hartuko dute ahotan.



Bigarren bilkura Potxoenean egingo dute, hilaren 24an.

korrika.eus

22.korrika
HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

MATERIALA
HEMEN
SALGAI:
Korrika dendetan,
AEKren euskaltegietan eta
www.korrika.eus atarian.

Lokal berriarekin ospatu zuten Gazte Eguna

Urtero ospatzen den Gazte Eguna aste-buruan ospatu zen, eta ez ohi bezala, azaroa amaieran.

Pandemiak azken bi urteetan Gazte Eguna jipoitu du, baina larunbatean indar betean itzuli zen. Goizean, gazte lokala inauguratu zuten eta bileratxo bat egin zuten inaugurazio egunean bertan. Arratsaldean, indar gehiago hartu zuen egun berezi honek eta poteoan aritu ziren herriko hainbat eta hainbat gazte tabernaz taberna. Ondoren, 21:30etik aurrera, afari bikaina erdietsi zuten Askatasuna Plazan musika giro bikainarekin.

Kontzertu eta Dj gaua

Inoizko gazte gehien bildu ziren afari hartan. Amaitzeko, kontzertuak izan ziren gauean eta DJ-a ere bai goizaldera arte.



Herri afaria eta kontzertua Askatasuna plazan egin zen.

Martin de Marte eta Skastiren kontzertua Aginagan

Aginagako Eliza Zaharra elkarguneak kontzertua iragarri du larunbat honetarako.

Martxoak 19, larunbata:

Skasti eta Martin de Marte

■ 22:30 Aginagako Eliza Zaharrean.

■ Sarrerak: 5 euro aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

Neona taldearen bideoklip berria

“Nire geltokia” izena du Neona musika taldearen lan berriko abestietako batek. Bideoklipa estreinatu berri dute egunotan, Youtuben duzue ikusgai. Taldearen estreinako diskoa martxoaren 23an argitaratzekoak direla berri eman dute sare sozialetan bidez.

Euskaldunak ere esklabistak izan ziren



Nafartarrak taldeak antolatu zuen Axier Lopezren solasaldia.

Axier Lopez Elkanori Bira ekimeneko kideak kolonialismoari buruzkoa hitzaldia eskaini zuen ostegunean Sute-gin. Orain arte gutxi hitz egin

bada ere, euskaldun batzuek modu batera edo bestera esklabotzan parte hartu zuten. Axier Lopezek hainbat adibide ekarri zituen gogora.

Torrealdaireren azken liburua aurkeztu zuten Sute-gin



Alkateak Egunkariaren azken alea oparitu zien Torrealdaireren senideei.

Joan Mari Torrealdai hil aurretik ia amaituta utzi zuen ‘Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta’ liburua aurkeztu zuten larunbatean. Agurtzane

Solaberrietak Egunkariaren azken alea oparitu zien Torrealdaireren senideei. Amaieran, solasaldia egin zuten garaiako oroitzapenak biltzeko.

Xabier Alvarez Yeregi: “Lanbroa filma gure bizitza kontatzen duen laburmetraia da”

Laburbira izango da, urtero legez, igandean Sutegin. Aurten ere laburmetraiez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Amaierako solasaldia bideratzeaz arduratuko den Xabier Alvarez Yeregik izan da NOAUA!.

NOAUA! Martxoaren 20an, Laburbira izango dugu Usurbilen. Lanbroa filmeko protagonistetako bat zara eta gure herrian grabatu zenituzten pasarte batzuk. Zeri buruzkoa da film hau?

Xabier Alvarez Yeregi: Hasieran, Ana, Paula eta Maialen gurekin harremanetan jarri ziren erlojuak zaharberritzen genituela jakin zutenean. Zumaiako farrorako bidean dagoen erlojua zaharberritzen hasi ginen, orduan. Momentu hartan izan genuen zuzendariekin lehen kontaktua. Gerora, Loiolako basilika eta Santa Engraziko erlojuei heldu genien. Urteak pasatu ziren lehen harreman horretatik filma egin eta bukatu arte. “Erlojua eta kukua” deitu nahi zioten filmari, hasiera hartan. Paulak eta Anak izena aldatzea erabaki zuten.



Usurbilgo elizako erlojuaren zaharberritzearekin lotura du filmak.

‘LANBROA’ LABURMETRAIAZ

“Lanbroa film laburra nahikoa tristea da bizitzaren alde gogor bat ere islatzen duelako, minbiziaren gaiarekin”

Gurekin harreman estua sortu zuten ordurako eta konturatu ziren beste kontu bat ere filmaren parte egin zitekeela, nire emazte Begoñaren gaixotasuna. Bigarren aldiz minbizia pasatu zuen filmari heldu behar genionean, eta ideia ona iruditzen zitzaizkizun zuzendariei

gaixotasunaren errekupeketa prozesu hori ere filmaren parte egitea. Hobekuntza izugarria izan du bere osasunak ordutik, lantxo hauei esker kalean ibiltzeko aukera gehiago izan du eta ez da etxean sartuta egon. Orain, Artzai Onaren katedraleko erlojuaren zaharberritzea amaitu dugu. Horrela, erlojuen zaharberritzea eta minbiziaren gaia uztartuta sortu zuten film hau: Lanbroa. Auzolanean sortutako proiektua izan da.

Usurbilen ere badugu erlojua. Badira bi urte Usurbilgo erlo-

jua zaharberritu zela, eta martxan egon arren, oraindik ez dago lana amaituta. Oraindik ez da kanpoko esfera konektatu. Udalak esan zuen berehala egin zutela, baina bi urte geroago, oraindik amaitzeke dago. Usurbil nahikotxo ezagutzen dut, nire birraitona Usurbilera ezkondu eta Aginagan bizi izan baitzen. 13 seme-alaba izan zituen bertan, eta ondoren, Zumaiara etorri ziren 1905 inguruan. Ezpaldi Berri base-rrian bizi izan ziren Zumaiara etorri aurretik, Martina Mantrola etxeko-andre zela.

Ez da fikziozko filma, beraz. Dokumental bat da?


Ez da fikzioa inondik inora ere. Gure bizitza kontatzen duen dokumentala da. Hasiera batean ordu eta erdiko film bat sortzea zen idea, baina 20 minutuko produktua da, azkenean.

Beraz, film labur bat da. Kontu hauek zuzendariari dagozkio, guk erakutsi nahi zuten lan horretan parte hartu dugu, eta haiek hartu dituzte gainontzeko erabaki guztiak.

“Grabaketa askoren emaitza da Lanbroa”

NOAUA! Noiz egin zenuten grabaketa? Zenbat denbora eraman zizueten filmaren ideia sortu, grabatu eta muntaketak?

Xabier Alvarez Yeregi: Lehen grabaketak egiten hasi ginetik pelikula amaitu arte, lau bat edo bost bat urte pasatu ziren. Honek ez du esan nahi bost urtez jarraian grabatzen aritu garenik. Al Borde Films sortu zuten zuzendariek, kooperatiba bat. Lan gehiago ere izan dituzte tarteko, eta haiek egiten jardun dute azken urte



Igandean ‘Lanbroa’ filma ikusiko da Sutegin. 18:00etan hasiko da proiektzioa.

hauetan. Grabaketa asko egin zituzten, eta horien ondorio da ‘Lanbroa’. Santa Engraziko

ermitan egindako grabaketan jai ikaragarri bat egin genuen txalaparta eta antzekoekin fil-

ma grabatzeko. Horri buruzko beste labur bat ere badago. ‘Lanbroa’ nahiko tristea da bizitzaren alde gogor bat ere islatzen duelako minbiziaren gaiarekin. Jai horrek beste buelta bat ematen dio filmari.

Solasaldia ere gidatuko duzu. Begoña emaztea ere bertan izango da?

Bai, biok hartuko dugu parte bertan. Begoñak euskaraz hitz egiteko zailtasunak ditu eta bion artean biribilduko dugu solasaldia.

Herriari emana

Herrigintzari estuki lotua egon eta herri dinamika hainbat sortzen, eragiten, babesten arituen Jexux Mari Errekondo zendu zen iragan astean, 92 urte zituela. Bederatzi hamarkadetakoa ibilbide luze horretan, hamaika bizipen izanik zaila da laburbiltzea, baina bere heriotza albiste honetara badakarkigu besteak beste, herrigintzari egindako ekarpen zabalagatik da.

Jaiotzetik Usurbil eta Zubietari lotua egon da Jexux Mari. Ahotsak.eus atarian irakur dezakegun moduan, “Arruenea Berrin jaio zen, sei senideren artean bosgarren. Aita Usurbilgoa zuten eta ama Zubietakoa. Gerra hasi zenean, amaren baserrira joan ziren Zubietara, eta 1956an itzuli ziren Usurbilerara bizitzera. Baserriko lanetan gogor aritutakoa, Usurbilen eta Andoainen ikasi zuen. Baserrian sagardo asko ekoizten zuten gero saltzeko, eta hartarako osabak handik eta hementik ekarritako makinaren laguntza izaten zuten. Erreboteko jokalaria izandakoa, 1956tik erretiroa hartu arte zerrategian egin izan du lan, eta ondo eza gutzen ditu zuhaitzen gaineko kontuak. Udaletxean ere egin izan du lan, lehenengo Francoren garaian, eta geroago Franco hil ostean: hirigintzako lanen



“Gure Artera bilgunean parte hartu zuen eta herriko jai eta zenbait ospakizunetan taloak egiten aritzen zen, suan bereziki, taloak egin eta egin”, usurbildarrakaurrera.com web orrian irakurri dugunez.

JEXUX MARI ERREKONDO

Usurbilgo ikastolaren sortzaileetarikoa bat izan zen, eta baserritarren sindikatuaren ere egin zuen lan

arduraduna izan zen, eta baserrietako telefonoa eta ura jarri zuten orduan, besteak beste. Usurbilgo ikastolaren sortzaileetarikoa bat izan zen, eta baserritarren sindikatuaren ere egin zuen lan”.

Sortzailea, eragilea, babeslea...

Zaila izango da, eta lerrootan ezingo dugu aipatu zenbat eta zenbat herri dinamiketan parte hartu duen. Zenbat egitasmoren bultzatzaile izan den. Esaterako, Aitzaga elkartearen sortzaileetarikoa bat izan zen. Auzitegi Nazionalaren aginduz sei urtez

itxita egon ostean, berak kendu zizkion kateak herriko tabernetan sarbideari.

Presoen eskubideen aldeko dinamiketan, euskalgintzan, besteak beste, Kantu Taldeko partaide izandakoa dugu. Ikastolaren sortzaileetako bat izan zen.

Euskal Herriko hizkerak eta auzoko ondarea biltzen duen ahotsak.eus atarian, bere hamai-ka bizipen, pasadizo eta lekuko izan zuten gertakari hainbat ere kontatzen ditu webgune horretan; errebotetaz, sagardogintzaz, udalgintzaz, lantokia zuen zerrategiaz...

Kirolean, Zubietako Yoko Garbi kirol elkartearen kide izan zen. Errebotean aritzeaz gain, “Sagarrena” izeneko futbol taldeko kidea izan zen, “Usurbilgo baserriak eta baserritarrak” argitalpenean irakurri ahal izan dugunez.

Antzezle eta umoregile iaioa galdu du herriak

Herrian hainbat sorkuntza lanetan umoregile nahiz antzezle gisa, herritarrei irri eginaraziz ikusi izan dugun Maitere Alkorta Lizargarate zendu da, 71 urte zituela.

Ibilbide horren zertzelada batzuk aipatzekotan, Usurbilgo historiaren pasarte ezberdinak gogora ekartzen zituen ‘Sarrailako giltza’ herri antzerkia izango duzue gogoan. 2005eko ekainean estreinatu zuten frontoian. Eta hantxe zen Maitere.

Txerriki antzerki taldeko kidea izan zen. 2008ko apirilean estreinakoz antolatuta zuten Lehen Kale Antzerki Egunean ‘Txarraka... show’ emanaldian parte hartu zuen. Emanaldiak izandako arrakasta itzelak herriko mugak gainditu zituen eta antzezlan berri bat ondu zuten urte hartako jaietarako.

2015eko Kilometroak jaialdiaren aitzakian egin zen ikuskizunean ere hartu zuen parte.

Benidorrera bidean

Azkenekoz, Covid-19ak eragindako osasun krisialdiaren aurretik igo zen oholtzak gainera. 2019ko otsailean izan zen. Gure Pakea Elkar-teak antolaturiko Jubilatutako Astearen baitan, Ixabel Agirresarobek zuzenduriko ‘Halako batean bagoaz Benidorrera!’ izeneko antzezlanarekin izan zen Sutegin.



2019ko otsailean, Sutegin eskaini zuten antzezlaneko kideekin batera ageri da Maitere Alkorta.

Agurra

Agur eta ohore, kapitain zaharra!

Errekondoko zuhaitza zaharra ur-errotaren ondoan, Uholdearen zaindaria Sustraiak errotuak Ama Lurrari Zure enborraren adaxkak loretan dira ageri, gazteei begiak zenizkien zabaltu eta bidea azaldu. Euskararen sustatzaile, Ikastolaren aitzindaria

Laborarien defentsan EHNERen bultzatzaile. Udal zereginetan nekaezina, herria eta herrigintza batzen zenituen hargina. Aitzaga elkartearen sortzaile eta Lehendakari, Marlaska epailearen aurrean buruzagi ageri. Eta nola ez! Hasiera-hasieratik plazan

joko garbiaren pilotari. Goruntz begiratzen dugunean, txapela buruan, txistera eskuan beti izango zaitugu gogoan. Errekondoko zuhaitz zaharra ur-errotaren ondoan, Uholdearen zaindaria Sustraiak errotuak Euskal Herriari

Usurbilgo EHBildu

Jexux Mari Errekondo: “Ni euskalduna naiz. Euskalduna eta euskotarra. Eta kito”

Udarregi ikastolak dokumental bat osatu zuen 2015ean, Gattunk Kilometroak-en aitzakian. Ikusentzunezko horretarako propio grabatua izan zen pasarte bat berreskuratu dugu. Jexux Mari Errekondok labur eta zehatz azaltzen du euskalduntasunari buruz zuen ikuspegia:

“Niretzako gu herri batekoak gara, ezta? Bai ala ez? Beti pentsatzen dut ni ez naizela bi amen semea, batena naizela. Eta niri espainola eta euskalduna esatea, hori ez dut entenditzen. Ez dut entenditzen. Batzuk ontzat hartuko dute eta ontzat emango dute, eta hori errespetatu beharra dago. Baina nire talentu motza ez da horraino ailegatzten. Nik pentsatzen dut ama baten semea naizela eta kito. Eta ama hori badakigu zein den, ezta? Ama horretarako hizkuntza bat, eta hizkuntza horretarako ama bat, herri bat. Eta hori da, horixe da dena.



2015ean Luis Jambrina errerealizadoreak hartu zizkion bideo-irudiak QR kodea eskaneatuz ikus ditzakezue.

JEXUX MARI ERREKONDO

“Niri espainola eta euskalduna esatea, hori ez dut entenditzen. Batzuk ontzat hartuko dute eta errespetatu beharra dago. Baina nire talentu motza ez da horraino ailegatzten”

“Zorionez eta zoritxarrez, ni euskalduna naiz”

Hortik ateratzen bagara nora goaz ba? Niri nazionalista eta horrelakoak... Ni euskalduna naiz eta kito. Euskalduna eta euskotarra. Eta kito. Hor bukatzen da. Euskalduna eta euskotarra. Hortik aurrera zer? Nola esango dut ba espainola

naizela? Edo frantsesa naizela edo alemana naizela? Ez. Ni euskalduna naiz. Zorionez eta zoritxarrez, baina ni euskalduna naiz”.

Adierazpenok Luis Jambrina bideo errerealizadoreak eginiko bideo batetik jaso ditugu. Gure web orrian duzue bideoa ikusgai, noaua.eus helbidean.

Agurra

Adio laguna!

Egun batzuk dira Jexux Mari Errekondo herritarra joan zai-gula eta zurekin bizitako hamaika bizipen datorkit burura.

Gogoan dut, 16 urtetan zehar komite lokaleko kide izan zinen eta tartean 6 urtez udaleko zinegotzi. Oroitzen naiz zu eta beste usurbildar batzuk 1979an EAJ-tik atera eta Usurbilgo Herri Lan sortu zenuten. Hauteskundeak irabazi eta 1979-1983 legegintzaldian ezkertiar gidaritza izan zuen Usurbilgo udalak. Sasoi honetan gai potoloak eztabaidatu ziren; Hirigintzako Plan Orokorra,

hondakinak, ongizatea, ikastola berria,... Maiona Sagar-do Lantegiaren salmenta eta itxieraren ondorioz 50 langile kaleratu zituzten 1987an eta beren borrokarekin bat egin zenuen. Oroitzen naiz, ikurrinaren Arbeloaren koadroa udalak bereganatzea bultzatu zenuen eta gaur egun, oleo hau alkatearen bulegoan dago.

Oroimenera datorkit zinegotzi izan zinen urtetan zehar herri bideak zuzendu zenituen, lan asko zegoen egiteko, bide bazterrak, argindarra, kanaletak, argiteri publikoa,...

Ezin ahaztu Usurbilgo bes-

te herritar batzuekin batera ikastolaren sorreran egin-dako lan guztia. Ez eta euskeraren aldeko etengabeko borrokaren sustatzaile izan zara. Urteak eta urteak herri-gintzan zure onena eman ez eta manifestazio guztietan ikusi izan zaitugu. Aitzagaren sortzaile, nekazarien defentsan, eta abar.

Gogoratzen naiz 1937ko irailak 4ko estatu kolpeaz zurekin izandako elkarriketa batean nola kontatu zenidan, faxistak Donostian sartu zirenean Telesforo Monzon eta jarraitzaileak ilunabarrean nola Zubietara iritsi ziren eta

Iñaki Salsamendik bere base-rrian babesa eman zien, gaua pasa eta gero Azpeitiara bidea ekin zutelarik.

Jexux Mari, gizon tinko eta zintzoa, mila esker bihotzez eta bidai ona izan dezazula, plazer izugarria izan da hainbeste urtetan zehar zurekin hamaika bizipen partekatzea. Familiakoa moduan maite izan zaitugu eta gure etxeko seme alaben zein zorionez ezagutu zaitugun edonoren bihotzetan bizirik jarraituko duzu.

Adio laguna! Agur eta ohore!

Manu Aranburu

Elkar zaintzarako ezinbesteko elkartasun ekintza

Guztiok bizitzeko behar dugun urre gorria, odola bermatua izan dezagun ezinbestekoa da herriz herri emaileen elkarteek eta bolondresak egiten duten ahalegina. Usurbilen ohitura honek sustrai sakonak ditu aspaldidanik. Bi hilean behin lehen astelehenetan izaten da odola emateko aukera. Azkenean martxoaren 7an izan zen. Egutegia eskutan, hurrengo hitzorduak maiatzaren 2an, uztailaren 4an, irailaren 5ean eta azaroaren 7an izango dira.

Odola emateko bete beharreko baldintza nagusiak: 18-65 urte artean izatea; 50 kilotik gora pisatzea; 12 urte baino lehenago hepatitis izan, kolesterol maila altua izan, baraurik egon ez edota ohiko botikaren bat hartzen baduzu ere, odola eman daiteke; emakumezkoek urtean gehienez hiru aldiz eman dezakete odola, gizonezkoek gehienez lautan; odol emate baten eta hurrengoaren artean, gutxienez bi hilabeteko tartea igarotzen utzi beharra dago.

Udarregin, gaur egun

Osasun krisialdian murgildu ginenetik, odola emateko hitzordua egokitu beharra izan dute Osasun Sailaren aginduz. Lehen anbulatorioan izaten zen odol ematea, egun Udarregi Ikastolako erdiko aretoan egiten dute. Orain ezinbestekoa da hitzordua hartuta joatea. Lehenbiziko aldiz odola eman asmo duenak, 943 007 884 telefono zenbakira deitu behar du. Lehendik odola eman izan dutenei, ze ordutan eman jakinarazten zaie aldezturik. Ondorioz, odol emateko ordutegia ere zabaldu egin dute; lehen 18:00-19:30 artean izaten zen, egun 16:30-20:30 artean.

NOAUA! Nolatan hasi zineten odola ematen?



“Orain jende gazte gehiago etortzen da. Lehen agian edadetuak ziren gehienak”, azaldu digute odol emaileek.

EDURNE URQUIA

“Usurbilen odola emateko ohitura handia egon da”

Itziar Muguruza Agirre: Amak ematen zuen odola eta ni 18 urterekin hasi nintzen. 7 aldiz edo eman nuen eta gero urte pila bat eman gabe egon nintzen. Gerora berriz hasi eta orain arte beti etortzen saiatzen naiz.

Eduarne Urquia Carrera: Aita zen emailea eta berarekin hasi nintzen etortzen eta ematen. Urte askotan eman nuen eta gero lan istripu bat izan eta akupulturarekin hasi nintzen, utzi beharra izan nuen. Hura utzia dudanez, berriz ematen hasi naiz.

Urteotan ze bilakaera sumatu duzue, emaile gehiago dago egun?

I.M.A.: Orain jende gazte gehiago etortzen da. Lehen agian edadetuak ziren gehienak. Osasunerako diote ona dela eta.

E.U.C.: Odola ematen hasi nintzenean emaile asko zen Usurbilen. Usurbilen odola emateko ohitura handia egon da. Ni hasi nintzenean oroitzen dut zenbat bazkari egiten ziren.

Zergatik da garrantzitsua odola ematea?

I.M.A.: Laguntzeko. Osasunerako behar delako eta jende asko dago behar duena. Bizitza asko salbatzen dira. Ahal bada eman.

E.U.C.: Ohitura kontua ere bada. Zer irakatsi diguten ere

kontuan hartzekoa da. Beti ikusi dut etxean eta segi egiten duzu. Zuretzako bada beste entzat ere bai, elkartasun hori.

Osasun krisialdiak gogorarazi digun moduan, elkar zaintzearen adibidea da honakoa, ezta?

E.U.C.: Odola behar baduzu jaso nahi zenuke, zuk behar baduzu odola nahi duzu besteek ematea, ba berdin.

Besteen odolaren beharrean aurkitu gaitezke eta, espero izan gabe.

I.M.A.: Odol asko behar da.

Zer moduz egokitu zarete osasun krisialdiak eragin dituen aldaketetara?

I.M.A.: Ni hobeto. Lekua aldatuta, hemen lasaia.

E.U.C.: Hobeto bai. Lehen lanei etorri eta etxera joan beharrean hona etorri eta denbora asko zain egon behar izaten zen. Jende asko biltzen ginen. Orain ordua emanda, ordu horretarako etorri eta kito. Antolakuntza hobea da orainoa.

Odola eman edo ez zalantzan dagoenari zer esan?

I.M.A.: Animatzeko eta probatzeko. Eta gero ikusiko du behar, segi edo ez. Batzuk probatu eta ezin badute normala da ez etortzea. Batzuetan beldurra izaten da probatzeko baina animatu.

Hiru herritar omendu dituzte

Covid-19ak Usurbilgo Odol Emaileen Elkartekoekin ohiko jarduna goitik behera aldarazi zuen 2020an eta ordutik modu ezberdin honetan ari dira auzolanean.

Iragan martxoaren 7ko saioan, oraindik heldu ez zaien ohiko jardunera i-

tzultzeko gogoia adierazi zioten NOAUA!ri. Besteak beste, emaileen ahalegina ere behar bezala eskertzeko baliatu zuten saioa. Pandemia aurretik odol emate kopuru zehatzetara heltzen ziren herritar guztiei eskertza egiten zieten. Egund, talde txikiagoetan bideratzen dute, ondoko irudian ikus dezakezuen moduan.

Martxoaren 7ko odol ematea hiru herritar omentzeko baliatu zuen emaileen elkarteak. 25 aldiz odola ematera heldu diren Eduarne Urquia Carrera eta Juan Manuel Etxabe Lizaso eta 40 emate egin dituen Itziar Muguruza Agirre. Odola ematear zirela elkarriketatu zituen NOAUA!-k Eduarne eta Itziar.

Euskarazko hedabideak diruz laguntzeko hitzarmena berritu dute

Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia zein Gipuzkoako foru aldundiek euskarazko hedabideen jarduerari diruz laguntzeko hitzarmena beste hiru urterako berritu dute. Bigarren aldia da hitzarmen hau sinatzen dela. Lehenengoa 2019an izan zen. Euskara hutsezko hedabideen finantzazio markoa adostea helburutzat duen akordioak lankidetzat du oinarri eta euskara hutsezko hedabideak diruz laguntzeko irizpideak bateratzen ditu, hedabide horiek kudeatzen dituzten enpresa egiturak indartuz eta banatu diren dirulaguntzen estaldura maila orekatuz.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak azaldu duenez, “Eusko Jaurlaritzaren legegaldi honetako Gobernu Programak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko konpromisoa hartzen



“Lehen hitzarmena 2019an sinatu zen lehenengoz eta orain jarraipena emango zaio. 2022-2024 epealdirako indarrean egongo da”.

HIRU URTEKO AKORDIOA

“Eusko Jaurlaritzak, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko bidean, behar beharrezkoa ikusten du euskarazko hedabideen eginkizuna”

du eta joan den astean Eusko Legebiltzarrean aurkeztu ge-

nuen Euskararen Agenda Estrategikoak ere bere egiten du konpromiso hori. Beraz, Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko bidean behar beharrezko ikusten du euskarazko hedabideen eginkizuna, bai publikoena eta baita pribatuena ere. Euskararen kalitatezko erabileraren ikuspegitik ere ekarpen azpimarragarria egiten dute. Gure hizkuntzak euskarazko hedabideak behar ditu”.



‘Elkar + ekin’ ekimena, igandean Orbeldi Dantza taldearen eskutik

Euskal Herria dantza batean jarriko duen ekimena igande eguerdi honetan, martxoaren 20an; “Elkar + ekin” izeneko ekitaldi berezia antolatu da. Usurbilen Orbeldi Dantza Taldea bideratzen ari da prestaketa lanak. Ekimenaren helburua “irabazi asmorik gabeko elkarteek egiten duten lana eskertzea da, eta horretarako, dantzaren bultzan elkartu nahi ditu halako elkarteetan lan egiten duen jendea”. Dantza taldetik ohartarazi dutenez, “jada ko-reografia bat asmatu da, zeinak mutxikoetako urratsak dituen”. Emanaldia igandean, 13:00ak aldera izango den arren, lehenago entsegu saioetan parte hartzeko aukera izango da, 11:00etan hasita frontoian.

Erakusketa Artzabalen

Joseba Agirrezabalaga eta Aitor Irulegi artistek elkarlanean sortutako marrazki sorta bat jarri dute erakusgai eta salgai Artzabalen maiatzaren 7ra arte.

Usurbilgo kultur gileen elkargunea eraikitzen

Prozesu honetako laugarren saioa deitu dute larunbaterako, martxoak 19, 10:00-13:00 artean Potxoenean. Kultur eragileei zuzenduriko hitzordua da honakoa.

Ukrainar herriaren alde

Ukrainako herriari “udal-gobernuen babesa eta elkartasuna helarazteko” bost minutuko elkarretaratze isilak deitu zituen EAE osoan martxoaren 9an Euskadiko Udalen Elkarteak, EUDEL-ek. Mobilizazio deialdi honetara batu zen baita Usurbilgo Udala. “Helburua da toki entitateek Errusiak Ukraina inbaditzeari eta horrek eragiten duen sufrimendu eta suntsipenari, eta milioika pertsonen behartutako exodoari uko egitea”.

EUDEL-etik berri eman duteenez, “euskal erakunde guztiak koordinatuta ari dira lanean, Euskadira irits daitekeen ukra-



Martxoaren 9an elkarretaratzea egin zuten udaletxearen atarian.

inar komunitateari laguntza eraginkorra, ordenatua, segurua eta baldintza duinetan emateko”. Ukrainaren in-

guruko mozioa bozkatzekoak dira ostegunerako, martxoak 17, deitu duten ezohiko udalbatzarrean.

#M8, zaintza sistema iraultzearen alde



Herri erdigunea zeharkatu zuen manifestazioak borroka feminista goratu zuen.

Zapaltzen gaituen sistemari sua! aldarripean, belaunaldi ezberdinetako herriko emakumeak batu zituen Kafe Tertuliak martxoaren 8an.

Borroka feminista goratu zuen herri erdigunea zeharkatu zuen manifestazioak. Indarrean den sistema zapaltzailea deuseztearen alde batu zituen herritarrak hitzordu honetan.

“Zaintza sistema komunitario publiko bat behar dugu”

Belaunaldi ezberdinetako herriko emakumeak elkarri eskua emanda eta Mikel Laboa plazan dantzan amaitu zuten

Martxoaren 8ko mobilizazio eguna.

Zaintza sistema komunitario publiko baten beharra aldarrikatzen zuen manifestua plaza-ratu zuten.

Tapa eta aurkibideaK prest



Agur esan diogu 2021 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2021eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Errigoraren produktu sorta zabala eskuratzeko aukera

Errigorak abian du beste urte batez, 'Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura' izeneko kanpaina, Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktu goxo askoekin, "euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan".

Eskaera handiak egiteko aukera duzue. "Urtean behin, urte guztirako", produktuak eskuratzeko. Arroza, pasta, barazki-kontserbak eta olio bidioiak dituzue aukeran. 12 unitateka eskuratu ahalko dituzue. Ordainketari lotutako ohar txo bat. "Ordainketa txartel bidez eginez gero, 100 eurotik gorako ordainketak bi zatitan egiteko aukera izango duzu (erdia martxoan eta bigarren zatia apirilean). Hala egiten ez baduzu, dena batera ordainduko duzu, eskudirutan, produktuak jasotzean", Errigoratik argitu dutenez.

"Jarri zure aletxoa"

Asteotan eskatutakoa jasotzeko 200 bat banaketa gune ditu



Arroza, pasta, barazki-kontserbak eta olio bidioiak dituzue aukeran.

ESKAERAK EGITEKO GARAIA

"Martxoaren 30era arte egin daitezke eskaerak. Produktuen banaketa ordea maiatzaren 10eko asteen egingo da"

Errigorak; Usurbilen NOAUA! Kultur Elkartean egoitza. Eskaerak online egiterakoan, puntu hau hautatzeko aukera duzue. Produktuak berri, maiatzaren 10etik 13ra jaso ahalko dituzue NOAUA!-k Bordaberri 3 kalean duen egoitzan.

"Zatoz gurekin eta jarri zure aletxoa, emeki-emeki, bestelako ekoizpen eta banaketa-ereduak ohiko bihurtzeko", luzatu dute gonbita. Gogoan izan, jasotako laguntzaren zati bat eremu hartako euskalgintzako proiektuetara bideratzen dutela.

Eskertza

'Oinak lurtean' aldarria hautatu du Errigorak abiarazi berri duen kanpainarako. "Azken urteetan Errigorarekin bat egin duten milaka herritarren hantuei esker pausu sendoak ema-

ten ari gara Nafarroako baratzetan, oinak lurtean eta emeki, bestelako ekoizpen eta banaketa-ereduak ohiko bihurtzeko bidean. Lur-eremu berriak jarri ditugu bestelako ereduen esku, kanpotik ekartzen genituen produktuen ekoizpena gurean berreskuratzen lagundu dugu, hainbat ekoizleri ekologikora trantsizioa egiteko bultzada eta babesa eman diogu eta euskarari olio-erota eta kontserba-etxeetako ateak zabaltu dizkiogu".

Eskaerak

- Epea: martxoaren 30era arte.
- Tokia: NOAUA! Kultur Elkartean egoitzan edo online errigora.eus atarian.
- Aukeran dituzuen produktuak: Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, barazki-kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak.
- Banaketa egunak: maiatzak 10-13.

Informazio gehiago:

errigora.eus

Lehia bizia, bikotekako dardo txapelketan



Usurbilgo Garazi Muguruza eta Kataluniako Ivan Guerrero nagusitu ziren. Alain Arrillaga eta Adrian hirugarren izan ziren.

Martxoaren 5eko Gipuzkoako Kopa jokatu ostean, bikotekako txapelketa ospatu zuten arratsaldean parte hartu zuten Aginagako Eliza Zaharrean. Antolakun-

tzak berri eman bezala, 28 bikote lehiatu ziren. "Herritarren partaidetza eta emaitzak bikainak izan ziren". Usurbilgo Garazi Muguruza eta Kataluniako



Ivan Guerrero nagusitu ziren. "Ezin aipatu gabe utzi hirugarren postuan sailkatu zen Alain Arrillaga (Usurbil) bere bikotekide Adrianekin (Errumania)".

Hurrengo denboraldira begira, "herriko dardoazaleek hainbat txapelketa dituzte helburu bezala eta gailurrera iristeko xedea dute".

Buruntzaldea IKT taldea: “Bizitza osorako kirol ibilbide bat eskaini dezakegu”

Maila ederra erakusten ari dira igeriketan Jon eta Eneko Isasa anai usurbildarrak. Buruntzaldea IKTn ari dira igerian aurten eta lehen txapelketez gozatzen ari dira. NOAUA! Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko arduradunarekin izan da bi igerilari hauen ibilbidea ezagutu eta taldearen nondik norakoak jasotzeko.

NOAUA! Buruntzaldea IKTn usurbildar batzuk badituzuela jakin dugu. Noiz eta zein helbururekin sortu zen eskualdeko taldea?

Borja Apeztegia: Buruntzaldea Igeriketa Kirol Taldea 2007an sortu zen, urte hartako urrian. Garai hartan, Buruntzaldean eta orokorrean Gipuzkoan igeriketak beherantz joera hartu zuela nabarmena zen eta horri erremedioa jartzeko, eskualderatze bat egitea zen aukera onenetariko bat, berriz ere igeriketak indarra hartzeko. Horrela sortu zen gure taldea. Momentu hartan, Buruntzaldea osatzen zuten herrietako igeriketa taldeei proiektu honen barnean sartzeari proposatu zitzaion: Hernani, Lasarte, Andoain eta Usurbilgo taldeari. Usurbilek ezezkoa eman zion eta euren bidea jarraitzea erabaki zuten. Hernanik ere, hasierako zalantzen ondoren, ezezkoa eman zion eta, beraz, geratzen ziren bien artean osatu genuen Buruntzaldea IKT Andoain eta Lasarterekin.



Test/KZL Ligaren hirugarren jardunaldia egin zen otsailaren 26an Ordizian. Buruntzaldea IKT taldeko 13 haur ureratu ziren Majori kiroldegiko igerilekuan. Beheko lerroan eskuinean, Eneko Isasi usurbildarra. Bere anaia Jon, goiko lerroan da, erdian.

BORJA APEZTEGIA

“7 edo 8 urterekin igeriketa ibilbidea egiten hasten diren haurrekin irakaskuntza prozesu bat egin behar da”

Lasarten eta Andoainen entrenatzeko aukera dago, beraz.

Hasieran hartutako bide horri jarraituta, taldeak presentzia dauka bai Lasarten eta baita Andoainen ere. Gehiengo, Lasarten aritzen da. Gure taldea osatzen duten igerilari gehienak ere lasartearrak eta andoaindarrak dira. Hala ere, beti izaten dira usurbildarrak, urnietarrak, hernaniarrak edo-

ta zubietarrak gure artean.

Zenbat igerilariri buruz ari gara?

Pandemia dela eta, kopuruak behera egin du. Aurten 90-100 igerilari inguru ditugu taldean, pandemia aurretik baino dezente gutxiago. Covidik ez zen garaian, 150-180 inguru izaten ziren. Arazoa ez da jendeak taldea utzi duela, baizik eta jende berria ez dela sartu. Gurea bezelako taldeek oso egitura piramidala izaten dute, oinarrian haur askorekin eta adinean aurrera egin ahala gutxituz joanda. Beraz, oinarri hori galtzeak arazo hori dakar. Gutxienez, 7 urte behar dira taldean sartzeko Lasarten, eta

Andoainen berriz, 8. 7 edo 8 urterekin igeriketa ibilbidea egiten hasten diren haur horiekin irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua egin behar da. Gerora, kirolaren ezagutzan sartzen dira eta absolutuen kategoriara iritsi arte, 20 bat urte arteko igerilariak ditugu. Master taldea ere badugu, 20 urtetik aurrerakoak izaten dira. Batzuei igeri egitea gustatzen zaie orokorrean, triatloian ibiltzen direnak edota itsas-zeharkaldiak gustoko dituztenak. Azken talde horretan daude helduenak. Orain daukagun igerilaririk zaharrenak 55-60 urte inguru ditu. Bizitza osorako kirol ibilbide bat eskaini dezakegu.

“Historikoki beti izan dugu usurbildarren bat taldean”

NOAUA! Usurbildarrak ere badira taldean, ezta?

Borja Apeztegia: Taldea sortu zenetik usurbildar gutxi ibili dira gurekin, egia esan. Jon

eta Eneko Isasa ditugu, anaiak biak. Aurten hasi dira lehenengoz gurekin. Historikoki beti izan dugu usurbildarren bat gurean, master taldean triatloian

ibiltzen direnak, esaterako. Zubietarrak ere baditugu. Multzo txikia izaten da, baina bada beti baten bat.

Zentzu horretan, ez da inon-

dik inora ere gure asmoa Usurbilen egiten den lanari kontraeskaintza bat egitea. Guk beti errespetatu izan dugu Usurbilen egiten den lana.

“Igeriketa oinarriak eta teknikak irakasten dizkiegu gaztetxoei”

NOAUA! Txikien kasuan, igeri egiten oso txikitan ikasten da, baina teknika onak lortzeak zenbat denbora eraman lezake?

Borja Apeztegia: Jon eta Eneko-ren kasuan, 10 eta 12 urte dituzte. Usurbilen ibili dira orain arte, eta bertan igerian ikasten hasi ziren, eta orain gurera etorri dira. Oinarri bat izan dute Usurbilen bertan. Gaztetxoak etortzen direnean igerian egiten badakiten galdetzen diegu, baina logikoki ez diegu galdetzen tximeleta edo croll egiten badakiten. Hori guk irakasten dugun zerbaite da. Uretan lasai egoteko gaitasuna baduten jakin nahi izaten dugu eta aurrrera edo atzera ibiltzen badakiten. Hori jakinda nahikoa da gurekin lanean hasteko. 7 urte baino lehenago ezin ditugu hartu, eta normalean, haur txikiak ikastaroetan hasten dira urarekin harremandu eta uretan lasai egoten ikasteko. Behin guk hartzen ditugunean, igeriketa oinarriak lantzen hasten gara eta teknikak irakasten dizkiegu. Kateaketa lan hori egiten dugu, azken finean.

Zein lehiaketatan hartzen duzue parte?

Adin talde bakoitzak bere kategoria propioa du, eta beraz, jarduera egitura propioa ere bai. Benaminek Test deituriko jardunaldiak izaten dituzte, arautegia, epaileen lana eta txapelketen funtzionamendua ulertzeko helburuarekin. Bost urtean gisa horretara ibiltzen dira alebinetara pasatu arte. Horiek jardunaldi gehiago izaten dituzte, zazpi gutzira.

Bi edo hiru trofeo ere jokatzen dituzte aldi berean, eta gainontzeko adin taldeen kasuan, jardunaldi mordoa izaten dituzte. Maila ezberdinak daude adin talde horietan.



“Benaminek Test deituriko jardunaldiak izaten dituzte, arautegia, epaileen lana eta txapelketen funtzionamendua ulertzeko helburuarekin”.

BURUNTZALDEA IKT

**“Igeriketa egokitu-
ere lan egiten dugu.
Nahia Zudairerekin,
esate baterako,
nazioarteko mailan
aritzen gara”**

Bertako jardunaldia deitzen direnak daude, alde batetik, martxa pixka bat hartu nahi duten igerilariarentzat. Lehiaketa nagusiak Gipuzkoakoa, Eus-

kal Herrikoa eta Espainiakoa lirateke. Igeriketa egokitu-ere lan egiten dugu eta Nahia Zudairerekin nazioarteko mailan aritzen gara.

Igerilari bakoitzaren behar eta helburuen arabera maila batean edo bestean aritzen da. Master txapelketak ere izaten dira, eta udan itsas-zeharkaldiak.

Astebururo daukagu izen-emateren bat egin beharra edo ligaren batean parte hartu beharra.



Pagazpe, trinketeko Gipuzkoako txapeldun

Enrike Huizi-Julen Urruzola Pagazpeko bikoteak irabazi du Gipuzkoako nagusien 2. mailako finala.

Beñat Lizaso, buruzko buruko txapelduna

Martxoaren 13an buruz buruko finalak jokatu ziren Idiazabalen. Bi kategorietan: adimen urritasuna duten pilotarien artean eta gurpil aul- kiko gomazko paletan.

Pagazpeko lau pilotarik jokatu zuten binakakoan eta buruz burukoan Beñat Lizaso izan zen txapelduna.

Ostiral honetan, errendimentuko txapelketa Usurbilen

Martxoak 18 ostirala, 18:30

Alebin 2. mailan:

Pagazpe-Kuku

Alebin 1. mailan:

Pagazpe-Aretxabaleta

Infantil 2. mailan:

Pagazpe 1-Hernani1

Ohitura osasuntsuak hartzeko kirol egokia

**NOAUA! Garaipenak ere izan-
go dituzue zenbait txapelke-
tatan.**

Borja Apeztegia: Usurbilen erroldatutako bi neska izan ditugu: Leire eta Ainhoa, eta biak Espainiako txapeldun izan ziren, eta lehen hiru postuetan ere bai hainbate-tan. Horiez gain, beste lau edo bost igerilari ere izan di-

tugu Espainiako podiumean. Nazioartean ere ibili izan da norbait igeriketa arruntean, eta Nahia igeriketa egokitu- maila gorenean aritu da. Garaipen garrantzitsu batzuk baditugu. Igerilari bakoitzak mahai gainean jartzen dituen helburuen arabera da, go- goa, interesa, esfortzua... Ga- raipen handiak lortzen dituz-

ten igerilariak oso gutxi dira, gehiengo taldean aritzen da igeriketaz disfrutatu eta Gipuzkoa edo Euskal Herri- ko mailan parte hartuz.

Ohitura osasuntsuak izan eta denbora ondo kudeatzen ikasteko modu ezinhobea da, eta bizitzarako onura edo ikaskuntza orokor bat da.

Usurbilen kokaturiko etorkizuneko kontakizuna idatzi du Uxue Alberdik

Usurbilgo hiria fabulatzan du izeneko kontakizuna sortu du Uxue Alberdik, izenburuak dioen moduan udalari honetan giro-tua. Martxoaren 9an aurkeztu zuen Sutegin, udal liburategiak udal Berdintasun Sailarekin elkarlanean antolatutako hitzorduan. Etorkizunean kokaturiko kontakizuna “Usurbilgo arkitektura feministaren proiektutik eta Txirikorda” belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektutik abiatzen dela adierazi zuen.

Uxue Alberdik Aginaga eta inguruotan 2017an grabaturiko ‘Oreina’ filma izan zuen inspirazio iturri. “Bi arkitektu dira 85 urte inguruan dabilzanak eta garai batean Madrilen fakultateko talde feministan elkar ezagututakoak. Fabula hemendik 50 bat urtera kokatzen da, beraz 50 urte atzera parte hartu zuten herri horretako eraldatze feministan. Pertsonaia nagusiaren, Luzen



Uxue Alberdi Sutegin izan zen martxoaren 9an.

MARTXOKO AGENDA

“Uxue Alberdiren ondotik, Ixabel Agirresarobe eta Yolanda Arrieta arituko dira Sutegin”

semeak alde egin zuela herri-tik, Luzen utopia ez zelako jasangarria haren semearentzat eta beste batzuentzat”. Lana liburutegian nahiz zirriborroak etagero.net atarian eskura dezakezue.

Emakume sortzaileen zikloa

■ Martxoaren 8an iaz sortze

lanen bat plazaratu zuten 83 euskal emakumeren zerrenda bat plazaratu zuten. Uxue Alberdik iragan astean Sutegin aurkezturiko kontakizunaren ondotik, zerrenda horretako herriko bi sortzaile gonbidatu ditu Udalak Sutegira.

Martxoak 29, asteartea

■ 18:00 Ixabel Agirresarobere ipuin kontaketa saioa 6-8 urte arteko haurrentzat.

Martxoak 30, asteazkena

■ 18:00 Irakurketa-kontaketa txokoa Yolanda Arrietarekin 4-5 urteko haurrentzat.



“Korrikako produktuak salduko ditugu”

Kaixo: Gu Udarregi ikastolako LH6-ko ikasleak gara. Urtero bezala, LH6-koek proiektu solidario bat antolatzen dute. Aurten AEK-ri (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) laguntzea erabaki dugu euskara bultzatzeko. AEK-ri laguntzeko Korrikako produktuak salduko ditugu, Korrikako txapak eta petoak, martxoaren 31tik apirilaren 7ra arte, 16:20-16:45 bitarte, Udarregi Ikastolako Agerialdeko eraikuntzaren sarrerako aterpean.

Horrez gain, Usurbilgo kilometro bat erosi nahi dugu. Dirua lortzeko, errifa batzuk sortu ditugu eta sari bezala, otar berezi batez gain, Patri, Aialde Berri, Atxega, Txiriboga eta Artzabal jate-txeetako 2 pertsonentzako menuak zozketatuko ditugu. Zozketa apirilaren 4ean egingo dugu. Lortutako dirua, AEK-ri emango diogu, bere proiektuarekin aurrera jarrai dezan.

Bestalde, Korrika Txikia ere egingo dugu ikastolan. Ostegunean izango da, apirilaren 7an. Bertan, Udarregi Ikastolako ikasle guztiok hartuko dugu parte.

LH6 ko ikasleak

Lan uztea Igepak-en

Zumartegi industrialdera gerturatu eta Igepak parean langileak lantegitik kanpo ikusi genituen martxoaren 11n. Lan uztea egin ari ziren eskaera argi baten bueltan; lan hitzarmen duina galdegiten dute. “Igepak-eko langileen batzarra, enpresa-itun duin bat sinatzea aldarrikatzen du”. Ozen aldarrikatu zuten, mobilizazio zaratzat egin zuten.



Lan hitzarmen duin baten alde ari dira borrokan.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaia.eus

Artzi
bazarriak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
943 362725
688 690 361

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekuia, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetea, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentia da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, mas-kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusia, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da aste-buruetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburueta-rako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaurlaritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaereta-rako. Egurdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduen zaintza lanetan esterna moduan aritzeko lan bila nabil. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxe lanak edo

haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. Harremanetarako: 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxe lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxe lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaian. Aurkitu baduzu deitu 685725681

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Alex!**

Martxoaren 13an bete zenituen urteak. Zorionak zure guraso, ahizpa eta gainerako senideen partetik.

**Zorionak Lur eta Amaiaur!**

Martxoaren 19an zuen urtebetze eguna dator!! Muxu handi bat familia osoaren partez!

Futbol partidak Haranen**Martxoak 19, larunbata**

- 09:00 Eskola Kirola.
- 10:00 Infantil neskak:
 - Udarregi Usurbil FT "B"
 - Arrupe Chaminade CD "B"
- 11:30 Infantil mutilak:
 - Udarregi Usurbil FT "B"
 - Hernani CD
- 15:30 Preferente neskak:
 - Usurbil FT
 - Mutriku FT
- 17:45 Preferente mutilak:
 - Usurbil FT
 - Antzuola KR

Martxoak 20, igandea

- 9:30 Futbol Eskola, benjaminak 2013: Usurbil FT-Martutene
- 10:30 Futbol Eskola, benjaminak 2012: Usurbil FT-Igeltzi
- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil FT-Ekintza KE

Goardiako farmaziak

Osteguna 17 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 19 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astlehena 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Osteguna 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 27 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda martxoa

18 ostirala

- **Soinurbil: "Rockalean"** ikuskizuna 19:30ean, kalean. Musika ikuskizun ibiltaria.

19 larunbata

- **Soinurbil: Ilunbe orkestra sinfonikoa.** 18:00etan Salbatore Elizan.
- **Kontzertu gaua Aginagan.** Skasti eta Martin de Marte, 22:30ean Aginagako Eliza Zaharrean.

20 igandea

- **Elkar+Ekin dantza saioa.** 11:00 Usurbilgo frontoian, Orbeldiren eskutik.
- **Soinurbil: Araiko musika banda** 12:00 kalejira. 13:00 frontoian azken emanaldia.
- **Laburbira:** 9 film labur ikusteko aukera. 18:00etan Sutegin.

Igandean Sutegin, Laburbira


Ostailaren 25etik apirilaren 4ra bitartean 29 herritan ikusi ahal izango dira Laburbiran bildutako 9 film laburrak. 2021. urtean zehar ekoiztutakoak dira film guztiak eta egungo euskal zinemagintzaren erakusgarri dira.

Martxoak 20 igandea

- **Laburbira:** Euskarazko film laburren emanaldia.
- **Sutegin,** 18:00etan.
- **Sarrera doan.**

Filmak:

- "Serendipia" (Iban del Campo).
- "Itsasontziaren mugimendua" (Alba Romera eta Rony Levoz).
- "Lanbroa" (Paula Iglesias).
- "Falta zaizuna" (Jose Luis Gomez).



'Lanbroa' film laburraren pasarte batzuk Usurbilen grabatu ziren.

- "Hurrengo geltokia" (Naia Aizpurua).
- "Rewind" (Amaia San Sebastian).
- "Turnoka" (Aitor Alberdi).
- "Subandilla" (Josu Martinez).
- "Itsaso" (Sergio Martinez).

Antolatzaileak:

Euskaltzaleen Topagunea, NOAUA!

Datozenak

Sarek bi deialdi egin ditu datozen egunetarako

Hitzordu bikoitza hurrengo astean, euskal presoek eskubideen alde lanean diharduen herri bilgunearekin:

Martxoak 25 ostirala, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

- Euskal preso, iheslari eta deportatuak eskubideen aldeko mobilizazioa. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Martxoak 27 igandea, 'Tipularen sehaska kanta' filma Sutegin

- 18:00etan, Sutegin.
- Lander Garro zuzendaria emanaldian bertan izango da.
- Sarrera: 3 euro, usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzaileak: Sare eta Udala.

Kontzertua Aginagan, Kaleko Urdangak eta Unidad Alavesarekin

Martxoak 26 larunbata

- 22:30etan Aginagako Eliza Zaharrean.
- Sarrerak: 10 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra elkargunea.

'Elkar + ekin' dantza bidezko eskertza ekitaldia

Ekimen honen helburua "irabazi asmorik gabeko elkarteek egiten duten lana eskertzea da, eta horretarako, dantzaren bueltan elkartu nahi ditu halako elkarteetan lan egiten duen jendea". Orbeldi Dantza Taldeak ohartarazi dutenez, "jada koreografia bat asmatu da, zeinak mutxikoetako urra-

tsak dituen". Entseguak goizeko 11:00etan hasiko dira frontoian eta eguerdi partean jendaurreko dantza emanaldia.

Martxoak 20 igandea

- 11:00 Usurbilgo frontoian.
- Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

OSASUN GIDA 2022



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikook
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen
salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu
tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik



JatorriaQuiz

Asma ezazu galderak zein Garapen Iraunkorreko Helbururi egiten dion erreferentzia, **eta sari bezala eraman ezazu landare bat zure etxean baratz propioa sortu ahal izateko!**

NOLA PARTE HARTU

Zatoz promozio standera, Urbilgo Bezeroaren Arretarako Gunearen ondoan, eta azafata baten laguntzarekin, parte hartu jokoan Urbilen doako aplikazioa erakutsiz, honako ordutegian: Astelehenetik ostiralera, 16:30etik 19:30era, eta larunbatetan, 11:00etatik 14:00era eta 16:30etik 19:30era.

[BLOG](#) [f](#) [t](#) [@](#) [urbil.es](#)